



IGANTZIKO UDALA

IGANTZIKO UDALERRIAN ABELTZAINZAKO TOKIKO AZPIEGITURAK HOBETZEKO OBRA KONTRATAZIOA

-ESLEIPEN PROPOSAMENA EGIN AITZINETIK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUEN EBALUAZIOA-

- **TOKIA:** Igantziko Herriko Etxea.
- **EGUNA:** 2023-06-23
- **ORDUA:** 15:00
- **KONTRATUAREN XEDEA:** Abeltzaintzako ustategietarako nahiz araubide estentsiboan aprobetxatutako belardi eta larreetarako sarbidea ematen duten bide-azpiegiturak hobetzea.
- **PROZEDURA:** Irekia.

BERTARATUAK:

- **ALKATEA:** Juankar Unanua Navarro.
- **IDAZKARIA:** Nagore Madariaga Iriarte.

2023ko ekainaren 16an SASOI ERAIKUNTZAK, S.L. enpresari, bera izan baitzen puntuazio hoberena lortu zuena, errekerimendua jaso ta 7 egun naturaleko epean, plegu arautzaileko 15. klausulan adierazitako dokumentazioa aurkezteko errekeritu zitzaion. Era berean, IV. eranskinean adierazitako datuak egiazkoak direla egiaztatzeko, epe berean, ALT txostena (Altako Langileen Txostena) eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiria aurkezteko eskatu zitzaion, honako hauek adierazita: langile kopurua, sexua, enpresan duten antzintasuna, lanbide-kategoria eta kotizazio-oinarriak.

Dokumentazioa aztertutik, honako hau zuzena dela ondorioztatu da.

Horrela bada, honako hau erabaki da:

BAKARRA.- Kontratazio organoari proposatzea aipaturiko obra kontratua SASOI ERAIKUNTZAK, S.L. enpresari esleitzea.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, honako akta hau sinatzen dugu.

Igantzin, 2023ko ekainaren 23an.

ALKATEA,

**Ziurtatzen dut
IDAZKARIA,**

Juankar Unanua Navarro

Nagore Madariaga Iriarte